

 <p>Eskola asangarria Ziurtagiria</p>  	<p>Ikastola itxita</p>  <p>baina denok lanean</p> <p><b>HERRI AMETSAKO LAN PLANGINTZA</b></p>	<p><b>Herri Ametsa Ikastola</b></p> <p>Guardaplata 28, 20016 Donostia</p> <p>Tel.: 943 393 520 / 392 421</p> <p>Faxa: 943 404 090</p> <p><a href="mailto:herriam@ikastola.eus">herriam@ikastola.eus</a></p> <p><a href="http://www.herriametsa.eus">www.herriametsa.eus</a></p> 
--	---	---

Guraso agurgarriak:

Dagoeneko, badakizue, Eusko Jaurlaritzak aginduta, gutxienez apirilaren 20 arte etxean geratu behar dugula. Zoritzarrez, horrek luze jo lezakeelako susmoa dugu eta, horregatik, mezu honekin lasaitu nahi zaituztegu: geure antolaketa eguneratu dugu, ordutegi telematikoa hautabidea bultzatuz eta lan estrategiak garatuz. Jakin badakigu mila galdera dituzuela: ikasturtea amaituko den, curriculum osoa emango ote den, oinarrizkoak irakatsiko, nolako azterketak eta errekonferentziak egingo diren, zer gertatuko den irailean... Horiek guztiak mahai gainean dauzkagu eta Hezkuntza Sailarekin batera erabaki beharko ditugu.

Bitartean, segi dezagun lanean: hemen dituzue hemendik aurrerako egokitzapenen zehaztapena:

## 1. HH

- 1.1. **Egunero, eguneko proposamenak blogera igoko dira.**
- 1.2. Tutoreek **egunero bideoak** grabatuko dituzte.
- 1.3. Bideo horiek egunero **Inikaz** bidaliko dira eta **HHko blogean** ipiniko.
- 1.4. HHko irakasleen asteroko **argazki muntaketa** egingo da, blogera igotzeko.
- 1.5. Blogean, **multimedia baliabideak** txertatzen segituko da.
- 1.6. **Ingeleseko** proposamenak emango dira.

## 2. LH: ordutegia (09:00-12:30)

- 2.1. Egunero, tutoreek **azalpen bideoak** grabatuko dituzte, egun horretan egin beharreko lanen inguruan eta, beharrezkoa balitz, azalpen berriak emanez.
- 2.2. **Jarduerek zuzenketak eskatuko balituzte**, bideoz egingo lirarteke. Badakigu ikasle gehienek *GoogleMeet*en bidez zuzentzen dituztela: ikasle guztienagana iritsi nahi dugu.
- 2.3. *GoogleMeet*en bidez, egunari amaiera bideoz emanen zaio, egindakoa balioesteko.
- 2.4. Bideoak honela bidaliko dira:
  - **LH 1 eta LH 2:** gurasoei, **Inikaz**.
  - **LH 3 eta LH 4:** ikasle bakoitzaren **posta elektronikoko helbidera**;
  - **LH 5 eta LH 6:** ikasle bakoitzaren **posta elektronikoko helbidera**.
- 2.5. Bideo guztiak **mailako edota gelako blogetan** ipiniko dira.

## 3. DBH: ordutegia (08:30-13:00)

- 3.1. Gaur egungo dinamika egokitzen ematen da. Hala ere, **azalpen berriak** eta **zuzenketak** egiteko garaian, adierazpen berezia behar dutenean, **bideoak** egingo dira.
- 3.2. Irakasleek **ikasle guztiak GoogleMeet**en daudela bermatuko dute. Horretarako:
  - Klasea hasi aurretik, ikasle guztiak *GoogleCalendar*ren bidez gonbidatuko dira.
  - Ikasle guztiak konektaturik daudela ziurtatuko da.
  - Sartzen ez diren ikasleak *GoGuardian*en txataren bidez sarraraziko dira.

 <p>Eskola asangarria Ziurtagiria</p>  	<p>Ikastola itxita</p>  <p>baina denok lanean</p> <p><b>HERRI AMETSAKO LAN PLANGINTZA</b></p>	<p><b>Herri Ametsa Ikastola</b></p> <p>Guardaplata 28, 20016 Donostia Tel.: 943 393 520 / 392 421 Faxa: 943 404 090</p> <p><a href="mailto:herriam@ikastola.eus">herriam@ikastola.eus</a> <a href="http://www.herriametsa.eus">www.herriametsa.eus</a></p> 
--	--	--

- Bertan sartzen ez direla ikusiko balitz, tutoreak *Inikaz* gurasoak informatuko lituzke.
  - Gurasoek erantzungo ez balute, tutoreak etxera deituko luke.
- 3.3. Ahal bada, klaseen artean, ikasleek 5 minutuko atsedenaldia izango dute.

#### **4. ETAPA GUZTIETAN:**

Astearte eta asteazkenetan, 13:00etatik 14:00ak arte, **gurasoei** *GoogleMeet*en bidez tutoreekin **hitz egiteko aukera** eskainiko diegu (gehienez 15 minutu familiako). Bilera aurrez eskatu behar da; eskaerak ikastolara *Inikaz* mezu bat bidaliz edo telefonatuz egingo dira: idazkariek tutoreari jakinaraziko diote eta ondoren, hark telefonoz hots egingo die (*HangoutsMeet*en bidez mintzatzeko aukera ere egongo da).

**Zuzendaritza Taldea**  
**Herri Ametsa Ikastola**